HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

# 2025eko prestakuntza-jarduerak

# Txostena

PRESTAKUNTZA HABE

Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloa

2026ko urtarrila

**1. Sarrera** ... 3

**2. Daturik nabarmenenak** ... 4

**3. Prestakuntza-jardueretan matrikulatutakoen argazkia** ... 5

**4. Digitalizazioa** ... 8

**5. Irakasbil** ... 9

**6. Prestakuntza-jardueren balorazioa eta emaitzak** ... 10

**7. Berariaz antolaturiko ikastaroak** ... 11

**8. Ikasturte-hasierako ekitaldia** ... 12

**9. Etorkizuneko ikuspegia** ... 12

**10. Laburpen modura** ... 14

Eranskinak ... 17

I. Prestakuntza-jarduerei buruzko xehetasunak ... 18

II. Ikastaroen hartzaileak ... 31

III. Modalitatea ... 34

IV. Hizkuntza ... 37

V. Ikastaro-emaileak ... 40

VI. Matrikulatuen kopurua ... 52

VII. Matrikulatuak sareka ... 56

VIII. HABEko langileen matrikulak ... 60

IX. Ikastaroen balorazioak ... 62

X. Ikastaro-emaileen balorazioak ... 65

XI. Ikasleek egindako balorazioak ... 67

XII. Prestakuntza-jardueren kostu ekonomikoa ... 75

# 1. Sarrera

Txosten honetan, HABEren 2025eko Prestakuntza Planean jasotako prestakuntza-jardueren laburpena aurkeztuko da, ahalik eta modurik argienean eta ulerterrazenean helarazteko informaziorik funtsezkoena. Gai jakin batzuetan sakondu edota xehetasun gehiago behar izanez gero, eranskinetara jo informazio osagarriaren bila.

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuak helduen euskalduntzean ari diren profesionalen prestakuntza du ardatz. Horretarako, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak etengabe lan egiten du euskaltegietako eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleen prestakuntza eta eguneratze didaktikoa sustatzeko. Helburua argia da: hizkuntzen irakaskuntzan izaten diren aldaketa eta berrikuntzei aurre egitea, eta irakasleen gaitasun profesionala indartzea, ahalik eta eraginkorrena izan dadin euskaltegietako eguneroko jarduna.

Euskalduntzearen beharrizanak aztertu ondoren, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak urteko prestakuntza-plana diseinatu eta gauzatzen du, datu eguneratuetan eta adierazleen analisian oinarrituta. Oraingoan, 2025eko Prestakuntza Plana gauzatu ondoren, txosten honek urtean zehar egindako jardueren ikuspegi orokorra eskaini nahi du eta egindako lanaren nondik norakoen berri eman.

Argia izan da 2025eko Prestakuntza Planaren helburua: euskara-irakasleen garapen profesionala indartzeko baliabideak eskaintzea. Horretarako, eskaintza egokitu eta hobetu da, euskaltegietako eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleentzat berariaz antolatutako ikastaro espezifikoen bidez. Ikastaro horiek hizkuntzaren irakaskuntzan erabiltzen diren baliabide eta metodologia eraginkorretan gaitzeko diseinatu dira. Gainera, profesionalen beharrizan berriei erantzuteko, planak prestakuntza espezializatuak eta esperientzia aurreratuak eskaini ditu, irakasleen eta arduradun akademikoen formakuntza sakonduz eta didaktika- zein teknologia-arloetan trebatuz.

Prestakuntza Planak errealitatearen analisitik erauzitako datu eta balorazioak baliatu ditu, proposamen eraginkorragoak sortzeko eta egungo lan-egoerara egokitzeko, eta jauzi kualitatiboa ekarri du helduen euskalduntzean diharduten profesionalen gaitasunen garapenean. Honela, euskaltegietako eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleei prestakuntza espezializatua eskaini zaie, aurreko urteetako esperientziak eta irakasleen beharrizanen azterketa kontuan hartuta.

2025ean askotariko prestakuntza-eskaintza antolatu da, irakasteredu desberdinak eta EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliz. Euskara izan da ardatza, baina, egoeraren arabera, ezinbestean antolatu behar izan dira zenbait ikastaro gaztelaniaz.

Prestakuntzak aukera eman die euskara-irakasleei gaitasun didaktikoak sendotzeko, metodologia berrietan sakontzeko eta teknologiaren erabilera indartzeko.

# 2. Daturik nabarmenenak

Atal honetan, Prestakuntza Planaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko dira, jasotako balorazioak eta **eranskinetako datu nabarmenenak** laburtuz:

- **II. Antolaturiko prestakuntza-jarduerak.** Hainbat ikastaro antolatu dira, metodologiaren eta gaiaren arabera sailkatuta, irakasleen beharrei erantzuteko. Aurten ere, eskaintza malgua izan da: saioak aurrez aurre, online edo jardun bikoan eskaini dira, euskara-irakasle eta ikastaro-emaileek beren eguneroko lanari egokitutako aukerak izan ditzaten.

- **III. Ikastaroen hartzaileak**. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten profesionalak, gehienbat, euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak izan dira. Horregatik, edukiak eta dinamikak euren beharretara egokituta diseinatu dira, eguneroko jardunean baliagarriak izan daitezen.

- **IV. Modalitatea.** Aurrez aurreko, jardun biko eta online ikastaroen eskaintza antolatu da, irakasteredu bakoitzaren abantailak ahalik eta gehien baliatuz. Helburua izan da irakasleei aukera malguak eskaintzea, euren beharrizanetara egokitutako prestakuntza jasotzeko. Nagusiki, aurrez aurreko ikastaroak antolatu dira gehienbat, ondoren jardun bikoak eta, azkenik, online erakoak.

- **V. Hizkuntza** Ikastaroak euskaraz edota gaztelaniaz eman dira, ikastaro-emailearen jatorrizko hizkuntzaren arabera.

- **VIII eta IX. Matrikulatuen [1]kopurua sareka taldekatuta.** Matrikulazio-datuek erakusten dute ikastaroetan parte hartzeko interes handia egon dela, handia izan baita sare guztietako parte-hartzaileen kopurua.

- **XI eta XII. Ikastaroen eta ikastaro-emaileen balorazioak.** Parte-hartzaileen balorazioak, oro har, positiboak izan dira, eta azpimarratu dute kalitate handikoa izan dela eskainitako prestakuntza, irakasleen beharrei erantzuteko diseinatua.

[1] Bereizi egin behar dira ikasleak eta matrikulak, zeren eta ikasle berak ikastaro bat baino gehiago egin baititzake, eta, ondorioz, ikasle horrek matrikula bat baino gehiago eginda izango ditu.

- **XIV. Prestakuntza-jardueren kostu ekonomikoa.** Prestakuntza Planaren kostu ekonomikoa xeheki aztertu da, baliabideak modu egokian erabiltzea bermatzeko eta etorkizuneko prestakuntza-planak hobeto antolatzeko. Guztira, **33.291,69 €**-koa izan da 2025eko prestakuntza-jardueren kostua (ikus XII. eranskina).

# 3. Prestakuntza-jarduereran matrikulatutakoen argazkia

Prestakuntza Plan honetako jarduera gehienak —izan ikastaro, izan web-mintegi— HABEren Erregistroan dauden euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleen beharrei erantzuteko antolatu dira. Hala ere, helduen euskalduntzearen sektorean lanean ari diren irakasleak ez dira matrikulatu bakarrak izan; izan ere, Hezkuntza Sailarekin lotutako beste erakunde publiko batzuetako profesionalek ere parte hartzeko aukera izan dute. Aurtengo matrikulazioari dagokionez, datuek zera islatzen dute:

- % 45,22 udal-euskaltegietakoak izan dira
- % 36,65 euskaltegi pribatuetakoak
- % 1,8 HABEko teknikariak
- % 16,33 bestelako erakundeetakoak (IRALE, HEO...)

Bestalde, HABEk antolatutako prestakuntza-jardueretan, EAEko irakasleek parte hartzen dute nagusiki, eta, horiekin batera, Nafarroako eta Iparraldeko irakasle batzuek ere esku hartu ohi dute. 2025ean, guztira, Nafarroako irakasleei dagozkien 13 matrikula izan dira eta Iparraldeko bakarrarena[2].

HABEk antolaturiko prestakuntza-jardueretan euskaltegiek izan duten parte-hartzeari dagokionez, matrikulazio-datuek erakusten dute euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroen **% 36k ez dutela parte hartu** 2025eko prestakuntza-jardueretan. Datu hori xeheago aztertuz eta 2024ko datuekin alderatuz gero, aurreko urtetik hona 10 puntuko hobekuntza dagoela atzematen da, 2024an %

[2] Ikastaroetako matrikulazioari dagokionez, *1246-Jardun biko irakaskuntza: aukerez betetako mundua* ikastaroan Nafarroako irakasle baten matrikula 1, *1249-Moodle ezagutu: erraz ikasi eta gozatu prozesuan* ikastaroan Nafarroako irakasle baten matrikula 1, *H09-25 Adimen artifiziala helduen euskalduntzean* ikastaroan Nafarroako irakasle baten matrikula 1 eta, *AEKren eskariz berariaz antolatutako ikastaroetan,* Nafarroako 7 matrikula. Azkenik, *web-mintegietan,* Nafarroako irakasle baten matrikula 1 eta Iparraldeko beste bat.

46koa izan baitzen HABEk eskainitako jarduaeretan parte hartu ez zuten euskaltegien kopurua.

Aurten ere, irakasteredu ezberdinak eskaini dira: aurrez aurrekoak, jardun bikoak eta online. Aurrez aurreko saioak Bilbon eta Donostian antolatu dira. Kokalekuei dagokienez, zenbait ikasleren balorazioetan azaleratzen da eragina dutela profesionalen parte-hartzean bai ikastaroen datek, bai ordutegiek, bai kokapen geografikoek, eta, ondorioz, sakonago aztertzekoa litzateke aurrera begira antolaketa-faktore horien bideragarritasuna.

Web-mintegiek ordu eta erdiko formatu labur, eroso eta eraginkorra izaten jarraitzen dute, saioan matrikulatzen direnei eduki espezializatuak helarazteko azkar eta merke. Horri esker, urrutiko prestakuntza-aukera handitu eta baliabideak optimizatu dira, irakasleen beharretara egokitutako soluzio praktikoa bihurtuz.

Ikastaroen eskaintza osatzean, web-mintegien eta ikastaroen arteko osagarritasuna sustatu ahal izan da batzuetan. Ikastaroek elkarreraginerako eta praktika zuzenagoa nahiz sakonagoa egin ahal izateko aukera eskaintzen dute. Eta, goraxeago adierazi bezala, web-mintegiak eduki espezializatuak urrutitik eta era laburrean igortzeko aukera.

2025ean, zenbait gai landu dira bi formatuen osagarritasuna baliatuz: 1) jardun biko irakasteredua eta 2) adimen artifiziala helduen euskalduntzean.

1) Jardun biko irakasteredua:

- Alde batetik, web-mintegian, gaiaren sarrera eta gako nagusien aurkezpena egin ohi da. Zehazki, 2025eko Prestakuntza Planean, Deirdre Barry-Murphy adituak *Una introducción a la enseñanza semipresencial: cómo conectar dos mundos (Jardun biko irakaskuntzari buruzko sarrera: nola konektatu bi mundu)* web-mintegia eskainiko zuen otsailean.

- Beste alde batetik, Susana Aldao eta Nuria Calvo irakasleek *La enseñanza semipresencial: un mundo de oportunidades (Jardun biko irakaskuntza: aukerez betetako mundua)* 20 orduko jardun biko ikastaroa eman zuten uztailean (aurrez aurrekoa Bilbon), eta prestakuntza-jarduera modu aktibo eta kolaboratiboan lan eginez gauzatu zen.

2) Adimen artifiziala:

- Alde batetik, web-mintegian, Egoitz Etxeandia irakasleak adimen artifiziala (AA) erabiltzeko irizpideak aurkeztu zituen ordu eta erdiko bi saiotan (urtarrilean eta martxoan), euskara-eskolak ematean AA erabiltzeko irizpideak eta zenbait erabilera-modu aztertzeko.

- Beste alde batetik, sei orduko bi ikastaro antolatu dira:
  - Batetik, Beñat Erezuma eta Elia Revuelta irakasleek *Adimen artifiziala, irakasleen gaitasun digitala aberasten* izeneko ikastaroa eman zieten AEKko irakasleei irailean, gaitasun digitalak hobetu eta adimen artifizialaren erabilera praktiko eta pedagogikoak barneratzeko.
  - Bestetik, Egoitz Etxeandia irakasleak *Adimen artifiziala euskararen ahalduntzean* izeneko ikastaroa eman zien Barakaldoko udal-euskaltegiko irakasleei irailean, tresna berritzaileak eskaintzeko, adimen artifiziala baliatuz euskara-irakaskuntza eguneratu eta eraginkorrago bihurtzeko.

Prestakuntza-jarduera horiez gain, 2025eko Prestakuntza Planean ekainerako antolatutako *1245-Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara: erronkak eta estrategiak* ikastaroa bertan behera utzi behar izan ondoren, gai bera lantzeko web-mintegi arrakastatsua eman zuen Kepa Diegez adituak urrian. Sakonago aztertzekoa da ikastaro honekin zere gertatu den. Alde batetik, 2024an, 16 irakasle matrikulatu ziren Kepa Diegez irakasleak Bilbon eman zuen aurrez aurreko ikastaroan eta, amaieran, balorazio ona jaso zuen prestakuntza-jarduera horrek ikasleen aldetik (8 puntu, 1etik 10erako eskalan).

Baina 2025ean, aitzitik, Donostian antolatutako aurrez aurreko ikastaroan, lau irakasle besterik ez ziren matrikulatu, eta, ondorioz, bertan behera utzi behar izan zen. Horregatik eta gaiaren garrantziaz jabetuta, urrian gai bera lantzeko aukera izan zen web-mintegiaren formatuan, eta saio horretan, aitzitik, 85 lagunek parte hartu zuten. Mintegiak balorazio ona jaso zuen (8 puntu) eta partaide batek baino gehiagok adierazi zuen oso gai interesgarria zela eta sakonago lantzeko prestakuntza eskatu zuten. HABEk, 2026an e-HIZPIDE aldizkarian argitaratzeko artikulua eskatua dio Kepa Diegez adituari, ahoskera eta prosodiari buruzko ezagutza zabaltzeko helduen euskalduntzean lanean ari diren irakasleen artean.

Bestalde, prestakuntza-jardueretan erabilitako hizkuntzei dagokienez, eskaintzen den prestakuntzaren kalitate-maila onari eustea izan da irizpide nagusia. Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak, ahal denean, irakasle aditu euskaldunak hautatzen saiatzen da. Hala ere, arlo jakin batzuetan adituak erdaldunak direnez, eskaintzaren erdia (% 50) gaztelaniaz eman behar izan da.

# 4. Digitalizazioa

Prestakuntza Planaren garapenean prozeduren digitalizazioak duen garrantzia dela-eta, hurrengo urteetan egokitzapenak aurreikusten dira ikastaroen digitalizazio eta automatizazioaren esparruan, modu arinagoan burutu daitezen prestakuntza-jardueren hasieratik amaierara arteko prozesuak.

Era horretara, aurrematrikulazio- eta matrikulazio-datuak era automatikoan kudeatuko lirateke eta, ondorioz, eraginkorragoa litzateke HABEko arloen arteko lankidetza. Esate baterako, urrats bat izan liteke matrikulak "ordainketa-pasabidea"-ren bidez ordaintzeko aukera eskaintzea.

2025eko Prestakuntza Plana egikaritzean, egokia izan da Ekonomia Arloarekin adostutako prozedura. Horrela, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak, sei aste lehenago igortzen dizkio fakturaziorako datuak Ekonomia Unitateari, eta hilabeteko epea ezartzen da ordainketa-gutunetan. Modu horretara bermatu da ikastaroak ematen hasi aurretik bideratzea matrikulen kobrantzak.

Bestalde, aurrerapauso txiki baina esanguratsua eman da: HABEren Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak antolaturiko ikastaroak egiten dituzten ikasleek lehen aldiz jaso dute elektronikoki sinatutako ziurtagiria, lokalizatzaile batekin. Hala, sinadura elektronikoari esker, dokumentuaren segurtasuna eta benekotasuna bermatzen du HABEk, eta, lokalizatzaileari esker, erraz identifika daiteke dokumentu hori.



HABE
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ZIURTAGIRIA

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduak ezartzen ditu helduen euskalduntze-arloko prestakuntza-jarduerek izan behar dituzten ezaugarriak eta bete behar dituzten jarraibideak.

HABEk kudeatzen ditu helduen euskalduntzegintzaren esparruko prestakuntza-planak eta ekitaldien xedea, hartzaileak, irizpide eta jarraibideak.

HABEren Curriculum Garapena eta Prestakuntza Arloak bideratzen ditu prestakuntza-jardueren ziurtagiriak.

*HABEren Prestakuntza Erregistroaren arabera,*

| *NAN* | *IZEN-ABIZENAK* |
|---|---|
| | |

*ikasleak honako ikastaro honetan hartu du parte:*

| IKASTAROA | DATA | LEKUA | IKASTEREDUA | EGUNAK | IRAUPENA | BERTARATZEA / ONLINE |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ADIMEN ARTIFIZIALA EUSKARAREN AHALDUNTZEAN | 23/09/2025 - 24/09/2025 | BILBO | Aurrez aurre | 2 | 6 | 100 |

*Donostian, 2025eko irailaren 24an*

Jokin Azkue Arrastoa
HABEREN ZUZENDARI NAGUSIA

HABE
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Vitoria-Gasteiz kalea, 3
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 022600 Faxa: 943 022601
www.habe.euskadi.eus
IFK: Q 2040002 D

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRONICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: JOKIN AZKUE ARRASTOA | 2025/11/10 09:20:16

# 5. Irakasbil

IRAKASBIL ataria Moodle plataforman dago egituratua, eta horrek aukera ematen du prestakuntza-jarduerak iragartzeko, online ikastaroak emateko, ikastaroen jarraipena errazteko eta dokumentazioa modu zentralizatuan kudeatzeko. Era berean, aukera ematen du aldez aurretik eskaintzeko bideo-formatuan bai zer-nolako prestakuntza-jarduera antolatu den, baita emandako ikastaroen eduki nagusien laburpenak ere *bi hitzetan*. Horrela, ikastaroetan parte hartu ezin izan duten irakasleek ere prestakuntza-saioetako funtsezko gakoak eskuratu ahal dituzte, modu arin batean.

Gainera, antolatu diren prestakuntza-jardueren eragina zabaltzeko helduen euskalduntzean eskolak ematen ari diren irakasleen artean, ikastaroak ematen dituzten irakasleen lankidetza bilatzen du Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak, ikastaroa amaitu ondoren e-HIZPIDE aldizkarian argitaratu ahal izateko ikastaroetan landutako gaiei buruzko artikulu espezializatuak. Bideo-laburpenek oso harrera ona izaten dute, eta bisita-kopuru esanguratsuak jasotzen dituzte, irakasleen interesa eta erabilgarritasuna islatuz.

Hala ere, bisita-kopuruen zenbaketan zenbait hobekuntza txertatu behar dira IRAKASBIL webgunean. Gaur egun, editoreen sarrerak ere kontuan hartzen dira bisita-kopuruetan, eta horrek desitxuratu egiten ditu erabilera-datuak. Horregatik, komenigarria da ezarpenak egokitzea, kanpo-erabiltzaileen bisita-kopuru fidagarriak lortzeko eta errealitateari egokiago erantzuteko. Nolanahi ere, alderdi tekniko hori hobetzeko eskaera eginda dago, eta uste izatekoa da luze baino lehen emango zaiola irtenbide egokia arazoari.

# 6. Prestakuntza-jardueren balorazioa eta emaitzak

Ikastaroen edukiari, formatuari zein antolaketari dagokienez, oso positiboak izan dira ikasleen balorazioak: ikastaroen batez besteko balorazioa **8,73tik gorakoa** izan da. Baloraziorik altuena 9,33koa izan da eta baxuena, berriz, 7,47koa.

Eta ikastaro-emaileek antolaketari egindako batez besteko balorazioa ere oso altua izan da: **9,70etik gorakoa**.

HABEren ikastaro-eskaintza orokorrean matrikulatuen kopuruari erreparatuta, arrakastarik handiena honako ikastaro honek izan du (matrikula-kopuru osoaren ehunekoa adierazita):

- *1253 – Jardun bikoa helduen euskalduntzean* (% 23,07)

Arrakastarik txikiena, berriz, honako honek:

- *1245 – Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara: erronkak eta estrategiak* (% 5,12)

HABEk laugarrenez eskaini du jardun biko ikastereduari buruzko online ikastaroa, helduen euskalduntzean ari diren irakasleak berariaz prestatzeko. Ikastaroaren helburua da irakasleek jardun biko ereduan esku hartzeko gaitasun pedagogiko eta teknologikoak garatzea, ikas-irakas prozesuaren kalitatea hobetzeko. Nagusiki jardun biko eredua lantzen bada ere, ikastaroa guztiz baliagarria da beste irakastereduetan diharduten irakasleentzat ere; izan ere, ikas-irakas prozesuetako gako didaktikoak eta teknologia digitalen erabilera (adibidez, Moodle plataforma) modu praktikoan jorratzen dira. Ikastaroaren egitura malguak ikasle bakoitzaren erritmo eta beharretara egokitzeko aukera ematen du, eta horrek ikaskuntza pertsonalizatua eta autonomoa sustatzen du.

Lehentxeago adierazi bezala, bertan behera utzi behar izan da ahoskeraren inguruko 1245 ikastaroa, aurrematrikula egin zuten pertsona-kopurua (4 lagun) ez baitzen gutxienekora ailegatu (8 lagun).  Gertaera horrek hausnarketa egiteko beharra azaleratzen du: pentsa liteke, agian, formatuak edo egutegiak ez direla egokienak izan; edo, beharbada, gaia ez dela euskara-irakasleen interesekoa; edo, apika, euskaltegietako lan-baldintzek oztopatu egiten dutela irakasleen parte-hartzea prestakuntza-jardueretan, edo...

Baina, kontrara, *Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara* web-mintegiak[3] arrakasta handia izan du —85 lagunek parte hartu baitute—, eta, ondorioz, mintegiaren arrakasta horrek berak azaleratzen du gaia, behintzat, irakasleen interesekoa dela eta badagoela prestakuntza-beharra eta -eskaera arlo horretan. Horrela, bada, gorabehera hauek ondo erakusten dute gai berak —kasu honetan, ahoskera eta prosodiak–— oso harrera ezberdina izan dezakeela hainbat aldagairen baldintzapean (formatua, lurraldea, garaia...) eta komeniko litzatekeela sakonago aztertzea ikastaroa bertan behera utzi behar izatearen arrazoiak.

# 7. Berariaz antolaturiko ikastaroak

HABEk prestakuntza-jarduerak antolatzeko urtero sustatzen duen dinamikari jarraikiz, lau ikastaro antolatu dira 2025ean euskaltegien eskaerari erantzunez: hiru aurrez aurrekoak eta bat online.

Ikastaro hauetan, matrikulatutako ikasleek matrikula guztien % 32,25 osatu dute. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, gora egin du bai antolatutako ikastaro-kopuruak, bai matrikulatuen ehunekoak; izan ere, 2024an hiru ikastaro antolatu ziren eta matrikulatuen ehunekoa % 17koa izan zen.

[3] Kepa Diegez irakasleak ekainean bertan behera utzitako ikastaroa web-mintegi formatura egokitu zuen urrian.

# 8. Ikasturte-hasierako ekitaldia

Urtero bezala, Prestakuntza Plana gauzatzearekin batera, ikasturte berriari hasiera ematen zaio. 2025ean ere, aditu bat gonbidatu da ekitaldira eta ordubete inguruko hitzaldia eskaini du. Ondoren, solasaldirako tartea ireki da parte-hartzaileek galderak egin eta iritziak partekatu ahal izateko.

Zehazki, HABEren 2025/2026 ikasturteko hasiera-ekitaldi akademikoan, Naiara Berasategik eskaini du hitzaldia, *Pedagogia inklusiboa* gaiaren inguruan. Berasategi andrea Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslea da, eta inklusioaren inguruan hainbat lan ditu argitaratuta.

Ekitaldiaren helburua izan da euskaltegietako arduradunen artean inklusioaren gaineko gogoeta sustatzea; hau da, hezkuntza-erakundeek benetako hezkuntza inklusiboa lortzeko dituzten erronkei eta aukerei buruzko gogoeta sakona egitea, betiere hezkuntza-prozesuak eta -emaitzak hobetzeko eta, nola ez, gizarte bidezkoago eta berdintsuago bat lortzeko. Horrenbestez, hezkuntza-testuinguruak berriro pentsatzeko gonbita egin nahi izan da, euskaltegien ikuspegi inklusiboaren garapenean eragiteko.

Ekitaldia 2025eko irailaren 19an gauzatu da, Donostiako Miramar Jauregian, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuorde Aitor Aldasoro jauna buru zuela eta HABEko zuzendari Jokin Azkue jaunaren gidaritzapean. Bertan, 90 lagun inguru bildu dira (euskaltegietako irakasle eta arduradunak nahiz beste erakunde publiko batzuetako ordezkariak), eta, luntxaren ondoren, solasaldirako aukera izan da. Ekitaldia EAEko hiriburuetan txandaka egiten denez, 2026an Bilbon antolatuko da.

# 9. Etorkizuneko ikuspegia

2025eko Prestakuntza Planak agerian utzi du digitalizazioaren eta automatizazioaren garapenean urratsak ematen jarraitu behar dugula, bereziki matrikulazio-prozeduren kudeaketan eta ordainketa-prozesuetan. Hurrengo urteetan ere, garrantzizkoa izango da digitalizazioaren aldeko berrikuntza sustatzea, kudeaketa-prozesuak eraginkorragoak eta arinagoak izan daitezen; azken batean, prozedura guztiak automatizatzeko. Horrela, HABEko langileen alferrikako lan-karga arindu, prozesuak erraztu, lanak hirukoiztu beharra saihestu eta datuen segurtasuna bermatuko litzateke. Ikastaro-hartzaileentzat ere

matrikulazio-prozedura soilduko litzateke, besteak beste ordainketa-prozesuak erraztuz.

Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloak digitalizazioaren eta prozesu berrien inplementazioaren aldeko ahaleginean jarraitzen du, HABEren prestakuntza-eskaintza modernizatzeko eta etorkizunean ikastaroen kudeaketa are eraginkorragoa izan dadin.

Horrez gain, orain arte bezala, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloa saiatuko da euskaltegietako irakasleen eta arduradunen esku-hartzea areagotzen Prestakuntza Planean, ahalik eta euskaltegi zein autoikaskuntza-zentro gehienek parte hartu dezaten.

Etorkizunean jorratu litezkeen lan-ildoei dagokienez, bi nabarmenduko ditugu txosten honetan: 1) batetik, euskaltegietako irakasleen parte-hartzea areagotzeko neurriak sustatzea eta 2) bestetik, urrats bat aurrera eginez, gehiago ikasi nahi duten irakasle-taldeak sustatzea.

1) **Irakasle-euskaltegien parte-hartzea areagotu**
   Alderdi kuantitatibotik, helburua da irakasle- eta euskaltegi-kopurua areagotzea HABEk antolatzen dituen prestakuntza-jardueretan.

   Era berean, alderdi kualitatibotik, ezinbestekoa litzateke euskaltegietan hobetzea prestakuntza-jardueretan jasotako formazioaren transmisioaren kalitatea eta, horren harira, prestakuntza-jarduera horietan ikasitako zenbait hobekuntza txertatzen joateko dinamika eragitea eskoletan.

2) **Gehiago ikasi nahi duten irakasle-taldeen dinamika bultzatu**
   Erronka da era kolektiboan lan egiteko dinamika areagotzea euskaltegietan, esperientzien jarraipena eta hobekuntzak egiten joateko aldiro era sistematizatuan, eta, ondorioz, nor bere aldetik era isolatuan aritzeko dinamikak gainditzen joatea.

   Ikasi nahi duten erakundeek berrikuntza eta ikerketa egitera jotzen dute, kideen artean prozesu kolaboratiboak eta elkarri laguntzekoak sustatzen dituzte, hobetzeko laguntzak eskaintzen dituzte eta zuzendaritzak rol dinamizatzailea hartzen du norabide horretan. Ondorioz, aldaketaren eragile moduan aritzen da zuzendaritza, kolaborazioa sustatzen du euskaltegian, proiektuak partekatzen ditu kanpoko eragileekin, lan-giro ona bultzatzen du, konfiantza eta praktika didaktikoaren gaineko eztabaida eragiten du, erabakiak ebidentzietan oinarrituta hartu eta berrikuntzarako bitartekoak eskaintzen ditu.

Horrela, bada, etenik gabe hobetzen joateko dinamikak areagotu beharko lirateke euskaltegietan, besteak beste ikas-irakas prozesuen kalitatea hobetzeko profesionalen taldeak sustatuz klaustroetan. Ondorioz, gehiago ikasi eta hobetu nahi duten profesionalen talde horiek aldian behin elkartuko lirateke, ikas-irakas prozesuekin lotutako esperientziak, ezagutzak eta praktika hobeak elkarbanatzeko. Talde horietan, irakasleek praktika didaktikoen gaineko gogoeta bideratzen dute, ikasgelan dituzten erronkei buruz eztabaidatzen dute eta taldean hartzeko irtenbideak bilatzen dituzte. Garrantzizkoa da esperientzia praktikoen gainean egitea gogoeta, eta giltzarria da aldez aurretik partekatzea eskarmentua eta esperientzia berriei ekiteko ikuspegiak alderatzea.

Azken batean, egitura sendo batean oinarrituta, ezagutzaren kudeaketa estrategikoa gauzatzea da xedea: ekintza-estrategia batekin hasi (praktikoa) eta amaitu praktikarekin lotutako estrategia batekin. Gogoeta-zikloa ekintza batekin hasiko da (hasierako estrategia didaktikoekin) eta beste estrategia finduago batekin amaituko da.

Gehien aurreratzen duten profesionalek denbora gehiasgo erabiltzen dute pentsatzeko zertarakoak eta nola egingo dituzten aldaketak. Era berean, gehiago irakurtzen dute eta beste irakasle batzuekin partekatzen dituzte egoerak eta balizko irtenbideak. Horrekin batera, noizean behingo ikastaro isolatuak gainditzen ahalegintzen dira, aipatu prestakuntza-ikuspegi sakonago eta kolaboratiboago honen bidetik joz.

# 10. Laburpen modura

- HABEk antolaturiko ikastaroetan matrikulatu direnen % 45,22 udal-euskaltegietakoa izan da, % 36,65 euskaltegi pribatu edo autoikaskuntza-zentroetakoa, % 1,80 HABEkoa eta % 16,33 bestelakoa (IRALE, HEO...).

- Matrikulazioan, hainbat faktorek eragiten dute, eta ikasleek egindako oharrek erakusten dute datak, ordutegiak eta ikastaroaren kokapenak eragin zuzen eta esanguratsua izan dezaketela matrikulazio-kopuruan. Ondorioztatu liteke horiek zuzenean baldintzatu dezaketela ikastaro jakin batzuen arrakasta edo arrakasta eza.

- Aurrez aurreko ikastaroak Bilbon eta Donostian antolatu dira. Aztertzekoa litzateke erdibidean antolatzeak (Eibarren edo Durangon, adibidez) matrikulan eragin positiboa izango ote lukeen.

- Ikastaroetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen presentzia nagusi izan da; hau da, ikastaroen % 60 euskaraz burutu dira. Gaztelaniaz nahiz ele bietan eskaini diren ikastaroetan, % 33 eta % 7 hurrenez hurren, hizkuntza-aukerak lotura zuzena izan du ikastaro-emailearen jatorrizko hizkuntzarekin.

- Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako % 36k ez dute HABEk antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartu 2025ean. Iazko datuekin alderatuta, parte-hartzea handitu egin da.

- 2025ean ere, gehixeago sustatu da web-mintegien formula. Guztira, 4 mintegi antolatu dira, eta azpimarratzekoa da izan duten arrakasta. Matrikulazio-kopuruen % 56,33 web-mintegiei dagokie.

- Euskaltegiek berariaz eskatuta, 4 ikastaro antolatu dira 2025ean (bat online eta hiru aurrez aurre.) Matrikula-kopuruen % 32,25 berariaz antolaturiko ikastaroetako matrikulazioari dagokio.

- Ikastaro-emaileei dagokienez, aurreko urteetan bezala, ikastaro-emaile berrien aldeko hautua ere egin da, irakasle ezagunak eta ezezagunak konbinatuz, betiere kalitatezko zerbitzua eskaintze aldera.

- Matrikula-kopuruei dagokienez, jardun biko ikasteredu eta Moodleri buruzko ikastaroak izan dira arrakastatsuenak. Aitzitik, ahoskera eta prosodiaren gaineko ikastaroa bertan behera gelditu da[4] eta parte-hartze txikiena aldamiatzeari buruzko ikastaroak izan du.

- Ikastaroek balorazio ona izan dute, notarik baxuena 7,47koa izan da, eta gehiengoa 9tik gorakoa.

- Ikastaro-emaileek ikastaroen antolaketari egindako balorazioek 9tik gorako puntuazioa izan dute.

- Azken urteetako ildoari jarraikiz eta adituen mailak eskatzen duen tarifara egokitzeko, *“aurrez aurreko ohiko ikastaro aurreratuak”* kontzeptuari dagokion tarifa-mota aplikatu zaie ikastaro-emaileei, 2025ean emandako aurrez aurreko ikastaroak emateagatik (eta ez *“aurrez aurreko ohiko ikastaroak”* kontzeptuari dagokiona).

- Ikastaroak antolatzeko orduan, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloa mugatuta dago datak aukeratzean: euskaltegi zein autoikaskuntza-

[4] Nahiz eta hiru hilabete geroago landu den gaia mintegi-formatuan, baita arrakastatsu bideratu ere.

zentroetako irakasleek, oro har, ikasturtea amaitu eta ikasturte berria hasi aurretik egin baititzakete ikastaroak; ondorioz, udako ikastaro gehienak ekaineko azken astean edota uztailaren lehen hiru asteetan nahiz irailean antolatu ohi dira, azpiko egutegietan azaltzen den moduan.

| EKAINA 2025 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AL. | AR. | AZ. | OS. | OR. | LR. | IG. |
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

| UZTAILA 2025 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AL. | AR. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

| IRAILA 2025 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AL. | AR. | AZ. | OG. | OR. | LR. | IG. |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

- Web-mintegiak antolatzerakoan, **garaia** ere kontuan izaten den arren, data aldetik malguago jokatzen da. Horrela, bada, eguerdi aldean antolatzen dira, klaserik egoten ez den orduetan, parte hartzeko aukera zabalagoa izan dezaten goizean edota arratsaldean eskolak ematen dituzten euskara-irakasleek.

# Eranskinak

I. Prestakuntza-jarduerei buruzko xehetasunak .................................. 18

II. Ikastaroen hartzaileak .......................................................... 31

III. Modalitatea ........................................................................... 34

IV. Hizkuntza ............................................................................. 37

V. Ikastaro-emaileak ................................................................. 40

VI. Matrikulatuen kopurua ......................................................... 52

VII. Matrikulatuak sareka ........................................................... 56

VIII. HABEko langileen matrikulak ............................................... 60

IX. Ikastaroen balorazioak ......................................................... 62

X. Ikastaro-emaileek egindako balorazioak .................................. 65

XI. Ikasleek egindako balorazioak ................................................ 67

XII. Prestakuntza jardueren kostu ekonomikoa.......................................... 75

# I. Prestakuntza-jarduerei buruzko xehetasunak

| UIK – Adimen artifiziala helduen euskalduntzean | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Hainbat irakasle |
| **Aurkezpena** | Lau zutabe nagusiren inguruan ardaztu da adimen artifizialaren gaia lantzeko ikastaroa: hezkuntzaren mundua, euskararen esparrua, hizkuntzen ikas-irakaskuntza eta helduen euskalduntzea. |
| **Data** | 2025eko uztailaren 2, 3 eta 4an |
| **Ordutegia** | Uztailak 2 (09:00 – 17:15)<br>Uztailak 3 eta 4 (09:00 – 13:45) |
| **Lekua** | Donostiako Miramar jauregia |
| **Iraupena** | 3 egun (17 ordu) |
| **Ikastaro-mota** | Aurrez aurrekoa |
| **Hizkuntza** | Ele bitan |
| **Hartzaileak** | - Irakasleak: bereziki helduen euskalduntzean dihardutenak edota hizkuntzen ikas-irakaskuntzan<br>- Unibertsitateko ikasleak |

| 1245 – Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara: erronkak eta estrategiak | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Kepa Diegez Barahona |
| **Aurkezpena** | Ikastaro honen helburua zen irakasleek ahoskera eta prosodia landu eta euskaltegietako programazio, ataza eta jardueretan berezko bihurtzea, baita ebaluatzeko tresnak izatea ere.<br>Ahoskeraren eta prosodiaren oinarrizko kontzeptuetan bat etorrita, euskaltegietako ECPetan agerrarazi eta eguneroko ataza eta jardueretan landu eta ebaluatzeko proposamena egin nahi zen. Praktikarako jarduera ugari eman nahi ziren aditzera, baita etorkizuneko erronkak ere. |
| **Data** | 2025eko ekainaren 23, 24, 25 eta 26 |
| **Lekua** | Euskaltzaindia, Donostia |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Aurrez aurrekoa |
| **Hizkuntza** | Gaztelania |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

Bertan behera

| 1246 – La enseñanza semipresencial: un mundo de oportunidades<br>(Jardun biko irakaskuntza: aukerez betetako mundua) | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Nuria Paula Calvo Blanco eta Susana Aldao Linares |
| **Aurkezpena** | Ikastaro honetan, Moodle ikasgelari ahalik eta etekin handiena nola atera landu dute: modu praktiko eta progresiboan, eta jardun biko eredurako hizkuntza-ikastaro erakargarri eta dinamiko bat diseinatu dute. Alderdi asinkronoa (Moodle gelan dagoena) eta alde sinkronoa (aurrez aurreko gelan) hizkuntzen irakaskuntzan nola konbinatu ikasi dute adibide praktikoekin.<br><br>Eredu hori haziz joan da azken urteotan; izan ere, hizkuntza-gaitasuna hobetzeko aukerak ematen dizkie ikasleei, hizkuntza-maila egiaztatzeari eta/edo laneratzeari/lan-sustapenari begira; eskola-uztea murrizten laguntzen du, ohiko ikasturteak baino malguagoa baita. Gainera, aniztasunari arreta ematen laguntzen du. |
| **Data** | 2025eko uztailaren 7-8-9 (aurrez aurrekoa) / uztailaren 14 (online) |
| **Lekua** | Deustuko udaltegia (Bilbo) |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Jardun bikoa |
| **Hizkuntza** | Gaztelania |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

| **1247 – El qué y el cómo: Principios metodológicos y herramientas de trabajo para incluir la mediación en mis clases y exámenes de euskera** | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Adolfo Sánchez Cuadrado |
| **Aurkezpena** | Ikastaro hau euskara-eskoletan bitartekotza nola txertatu (bai irakas-, bai ebaluazio-prozesuetan) aztertu nahi duten irakasleei zuzendu zaie, eta komunikazio-modu horrek euskararen irakaskuntzarako dituen aukerak aztertu dira bertan. Era berean, euskara-eskoletan bitartekotza lantzen hasita dauden irakasleen gaitasun didaktikoetan ere sakondu da. Ikastaroa bitartekotzaren ikas-irakas prozesuetan ardaztu da, baita ebaluazio formatiboaren prozesuetan ere, eta *EEMB*aren komunikagaitasun-maila guztietan. Azkenik, bitartekotza ebaluazio-prozesu egiaztatzaileetan nola txertatu ere aztertu da, 2024an C2 maila egiaztatzeko azterketetan txertatu baitu HABEk, eta arreta berezia jarri da B2 eta C1 mailetan. |
| **Data** | 2025eko uztailaren 15etik 18ra |
| **Ordutegia** | - Saio sinkronoak (15 ordu): uztailaren 15, 16 eta 18 (09:00etatik 14:00etara)<br>- *Offline* lan praktikoa (5 ordu): uztailaren 17an |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Online (Moodle + Zoom) |
| **Hizkuntza** | Gaztelania |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

| 1248 – Enseñar con andamiaje: estrategias innovadoras para promover un aprendizaje duradero y significativo (Irakatsi aldamiatzea baliatuz: estrategia berritzaileak, ikaskuntza iraunkor eta esanguratsua sustatzeko) | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Beatriz López Madina |
| **Aurkezpena** | Ikastaro honetan, aztertu da euskara-eskoletan nola eskaini aldi batean laguntza-estrategiak, ikasleek aukera izan dezaten aurrera egiteko euskaraz duten gaitasunetik abiatuta (baita ikasle hasiberriek ere), betiere xede-hizkuntzan autonomia eta jariotasun handiagoa lortze aldera. Ikastaroan teoria eta praktika uztartu dira, eta ikasitakoa beren testuinguruetan aplikatzeko aukera eman zaie irakasleei. Ikaskuntza pertsonalizatzea eta metodologia komunikazio-jardueretara egokitzea helburu, ikastaroa baliagarria izan da irakasteko gaitasun pedagogikoak eguneratu eta ikasleek hizkuntzak ikasteko duten gaitasuna maximizatu nahi duen edozein irakaslerentzat. |
| **Data** | 2025eko uztailaren 21etik 24ra |
| **Lekua** | Euskaltzaindia (Donostia) |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Aurrez aurrekoa |
| **Hizkuntza** | Gaztelania |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

| 1249 – Moodle ezagutu: erraz ikasi eta gozatu prozesuan | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Marga Ibañez Ramos  eta Andoni Tolosa Goikoetxea |
| **Aurkezpena** | Moodle plataforman erraztasunez aritzeko ikastaroa. Edozein ikasteredutarako baliagarria. Plataformari beldurra kendu, ezagun bihurtu, erabilpen-esperientzia hobetu eta eskaintzen dituen tresna batzuen aurkezpen-lanketa egin da: elkarreragina sustatzeko (foroak, glosategiak, wikiak), komunikazioa errazteko (mezularia), edukien lanketa eta aurkezpenerako (liburua, galdetegiak, zereginak, H5P) eta ebaluaziorako eta ikaslearen monitorizaziorako (kalifikazio-liburua, jarduera osaketa). Baita motibazioa bultzatzeko ere (dominak, txostenak). Gainera, Moodletik kanpoko tresnak txertatzeko aukerak aztertu dituzte. Azkenik, audio eta bideo formatuen oinarrizko edizioa landu da. |
| **Data** | 2025eko irailaren 8, 9, 10 eta 11 |
| **Lekua** | Bilboko euskararen etxea |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Aurrez aurrekoa |
| **Hizkuntza** | Euskara |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

| 1242 – Jardun bikoa helduen euskalduntzean II (3. edizioa) | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Marga Ibañez Ramos eta Andoni Tolosa Goikoetxea |
| **Aurkezpena** | Jardun biko ereduan ari edota arituko diren irakasleei laguntzeko tresna gisa diseinatua, eta ikasleen autonomia sustatuko duen ikas-irakas prozesuaren alderdiak ezagutarazi nahi dituena.<br>Bi moduluetan, plataforma birtualaren erabileran eta banakako nahiz elkarlanean egin beharreko jardueretan autonomia sustatzeko eta ikasleei ikasten ikasteko estrategiak garatzen laguntzeko, jardun biko ikastaroa ematean kontuan hartu beharreko alderdi didaktikoak eta pedagogikoak jorratu dira. |
| **Data** | 2025ko urtarrilaren 15etik apirilaren 3ra |
| **Ordutegia** | Asinkronoa |
| **Iraupena** | 40 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Online (Moodle + Zoom) |
| **Hizkuntza** | Euskara |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte. |

| 1253 - Jardun bikoa I: Plataformaren bidez bi mundu konektatzea eta ikasleari ikaskuntzan laguntzea (4. edizioa) | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Ana Rodriguez eta Fidel Vegas |
| **Aurkezpena** | Ikastaro honetan, jardun biko ereduan arituko diren irakasleentzako estrategiak eta orientatzeko erremintak landu dira, eta, ondorioz, irakaskuntza-eredu horretan murgildu ahal izateko esparru teoriko-praktiko bat eskaini da. |
| **Data** | 2025/10/02tik 2025/11/06ra<br>2025/11/12tik 2025/12/17ra |
| **Ordutegia** | Asinkronoa |
| **Iraupena** | 20 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Online (Moodle + Zoom) |
| **Hizkuntza** | Euskara |
| **Hartzaileak** | Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak |

| 1250 – Adimen artifiziala, irakasleen gaitasun digitala aberasten | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Beñat Erezuma eta Elia Revuelta |
| **Aurkezpena** | Ikastaroak AEKko irakasleen gaitasun digitalak hobetzeko xedea izan du, adimen artifizialaren erabilera praktiko eta pedagogikoak barneratuz. Adimen artifizial sortzaileen azken aurrerapenek irakasleen lanbidean aldaketa sakonak ekarri dituzte. Gainera, ebaluazio-metodoak eta -estrategiak ere eguneratu behar dira, ikasle bakoitzaren aurrerapena zehatzago neurtzeko eta hezkuntza-prozesua pertsonalizatzeko aukera emanez. Horrela, ikastaro honen bidez, irakasleak teknologia berrien erabilera didaktikoan trebatu dira, etorkizuneko erronkei eraginkortasunez aurre egiteko prestatuz. |
| **Data** | 2025eko irailaren 9 eta 10 |
| **Ordutegia** | 15:00 – 18:00 |
| **Lekua** | Bilboko Euskararen Etxea |
| **Iraupena** | 6 ordu |
| **Ikastaro-mota** | Aurrez aurrekoa |
| **Hizkuntza** | Euskara |
| **Hartzaileak** | AEK |

| 1251 – Gatazken kudeaketa | |
|---|---|
| **Ikastaro-emaileak** | Teresa Aranzibia Agirrezabal |
| **Aurkezpena** | Ikastaro honen helburu nagusia izan da gatazkei buruz hitz egitea. Gatazkak ezinbestean gertatzen direnez, gatazka-motak ezagutzea eta gatazka baten aurrean har daitezkeen jarrerak zeintzuk diren jakitea; gatazkaren bat eta horrek sortzen dituen emozioak kudeatzeko eman beharreko urratsak zeintzuk diren ikastea. |
| **Data** | 2025eko irailaren 4 eta 5 |
| **Ordutegia** | 09:30-13:30 |
| **Lekua** | Etumeta AEK euskaltegia (Usurbil) |
